

PRAXAIR ESPAÑA, S.L.U., BARAKALDO

Enpresaren identifikazioa eta helbidea

PRAXAIR ESPAÑA, S.L.U.

Buen Pastor kalea s/n

48903 – Lutzana, Barakaldo (Bizkaia)

Praxair España S.L.U. establezimendua (Lutzana, Bizkaia) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenen mende dago (substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen ditu dekretu horrek), eta 7. artikuluan xedatzen den jakinarazpena entregatu dio Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari, artikuluko 1. apartatuan zehazten den edukiarekin, baita 10. artikuluko 1. apartatuan adierazten den segurtasun-txostena ere.

Establezimenduaren jarduera

Gas industrialen fabrikazioa

Istripu larria eragin dezaketen substantziak

Izena	H esaldiak	Piktogramak
Hidrogenoa	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	 
Azetilenoa	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	 
Oxigenoa	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea. Presiopeko gasa	 
Propilenoa	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	 

Metanoa	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	 
Oxido Nitrosoa	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea. Presiopeko gasa	 
Gasola	H226: Likido eta lurrin sukoiak. H304: Hilgarria izan daiteke ahoratuz eta arnasbideetatik sartuz gero. H315: Larruazaleko narritadura sortzen du. H332: Kaltegarria da arnastuz gero. H351: Minbizia eragin dezakeela susmatzen da. H373: Kalteak eragin ditzake organo jakin batzuetan, esposizio luze edo errepikatuagatik. H411: Toxikoa da uretako organismoentzat, eta ondorio kaltegarri iraunkorrak dauzka.	   
Nahasketa sukoiak	H220: Gas guztiz sukoia. Presiopeko gasa	 
Konburenteen nahasketak	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea. Presiopeko gasa	 

Herritarrentzako alerta eta informazioa

Istripu larriren bat eragin lezakeen egoeraren bat gertatuz gero establezimenduan, eragindako herritarrei ohartaraziko zaie eta informazioa emango zaie.

Honako bitarteko hauek erabiliko dira herritarrek ohartarazteko eta informazioa emateko:



- Zuzeneko abisuak, Babes Logistikorako Taldearen ibilgailuetako megafonia bidez.
- Hedabide sozialak (telefonía, faxa, posta elektronikoa, herri-irratia, tokiko TV kateak).

Azken ikuskapena

2017ko maiatzaren 30an egin zen azken *in situ* ikuskapena.

Aurrez eskatuta, azken *in situ* bisitaren eta ikuskatze-planaren datuak lor daitezke, hemen:

Industria Erregelamendu eta Segurtasun Zerbitzua

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
Donostia kalea 1
01010 Vitoria – Gasteiz

Informazio gehigarria

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona:

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Foronda kalea 41, La Torre eraikina
01010 Vitoria – Gasteiz